

Txapa konformatzeko teknologiei buruzko mintegia

2008/12/02

Materialak Konformatzeko Prozesu Aurreratuen ikerketa lerroko Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko taldeak "Txapa konformatzeko teknologiei buruzko mintegia" antolatu zuen azaroaren 26an Garaia berrikuntza gunean, Arrasaten.

Jardunaldian, nazioarteko goi mailako adituez gain, hainbat enpresa, ikerketa eta garapen zentro eta estatuko unibertsitatek parte hartu zuten. Egun txapa-konformazioaren sektoreak dituen joerei buruz jardun zen bertan, prototipatu azkarretik hasita, maila industrialean garatzen den fabrikaziora. Enpresen parte hartzea handia izan zen, 120 pertsona bertaratu ziren eta bertaraturakoei konformaziorako teknologia nagusiak eta teknologia horren aplikazio posibleak erakutsi ahal izan zitzaizkien. Jardunaldia arrakastatsua izan zen.

Zentro gonbidatuak honako hauek izan ziren: Darmstad unibertsitateko Institut für Produktionstechnik und Umformmaschinen (PtU); Hannover eko Laser Zentrum (LZH); ASCAMM Bartzelonako ikerketa zentroa, Municheko DataM Software GMBH enpresa, Fagor Arrasate Kooperatiba Elkarte, Volkswagen multinazionala Kassel-eko enpresa ordezkaturik eta Zamudioko Labein Teknalia ikerketa zentroa.

Aztertu ziren teknologia berriak laser bidezko konformazioa, erdi mailako tenperaturan egindako hidrokonformazioa, beroan eginiko estanzazioa eta gas bidezko konformazioa beroan, profilaketa malgua, konformazio inkrementala, konformazio elektromagnetikoa eta mikrokonformazio prozesuak. Azken zatian, makinari buruzko kontzeptu berrien lanak aurkeztu ziren, hain zuzen ere serbomotorraz eragindako prentsak eta prozesu adimendunak.

Jardunaldiak, unibertsitate, zentro teknologiko eta enpresen arteko indarrak biltzeko balio izan zuen. Hau ezinbestekoa da balio erantsi handia duten eta iraunkorrak diren piezen konformazioa bermatuko duten material eta prozesu berriak garatzeko ikerketak egin daitezkeen.

Gai honetan adituek, aipatzekoa Pro. Dr. Ing. Dipl. Wirtsch. Ing Peter GROCHE-ren parte hartzea, malguagoak eta funtzio anitzak dituzten prozesuak garatzearen garrantzia aipatu zuten geometria berriak lortu ahal izateko material berriak erabiliz, aluminio eta magnesio aleazioak nabarmenduz, oso erresistentzia handiko altzairuak eta boroz aleatutako altzairuak.

Jardunaldia, MU-ko konformazio laborategietara egindako bisitarekin amaitu zen eta azken bost urteetan unibertsitateak landu dituen aurrerakuntzak aurkeztu ziren.

